

## **Silver Bizkaia proiektua Basauri eta Etxebarrin**

2060 urtean, hiru  
europarretik batek 65  
urtetik gora izango ditu.

---

Euskadin, 2028 urtean,  
50 urtetik gorakoak  
gehiengoa izango dira  
gizartean, eta  
kontsumoaren motorra.

---

Basaurin, 65 urtetik  
gorakoak populazioaren  
% 26'5a ziren jada 2017an.

Euren biziara betetasunez bizitzeko beharrak, asmoak eta irrikak dituen kolektiboa da. Etengabe hazten ari da. Gastu-ahalmena dute eta euren aztarna ekonomikoa geroz eta handiagoa da.

Europar Batasunaren arabera, 50 urtetik gora dituzten haiei zuzendutako ekonomiaren atalari **Silver Economy edo Zilarrezko Ekonomia** deritzo.

Silver Economy-k adin nagusikoen beharrak asetzen dituzten jarduera ekonomiko horiek guztiak barne hartzen ditu. Gizartearen segmentu zehatza helburu duten produktu nahiz zerbitzuak, hainbat sektoretan eragina dutenak: osasuna eta elikadura, aisia eta ongizatea, finantzak eta garraioa, etxebizitza, zainketa, hezkuntza edota lanbidea, besteak beste. Ekonomia honen inpaktua orokorra da eta handituz doa, Silver Economy **egungo joera demografikoei estuki lotuta** baitago, non adinekoen kopurua haziz doan.

Ondorioz, negozio aukera bikaina da enpresentzat, adinekoen kontsumoa, mundu-mailan, bilioi eurotan zenbatzen baita. Estimazioen arabera, Europako kontsumo-hazkundearen ia %60a 2015-2030 aldian 60 urtetik gorako pertsonengan kontzentraturikoa da.

Zenbat eta enpresa gehiago dira Silver Economy deritzonari begira jarri direnak. Indartsu agertzen ari den aukera-esparrua da, oraindik asetzeke eta aurkitzeke dauden hainbat beharri-zanekin. Berebiziko interesa du euren merkatu eta produktuak dibertsifikatu nahi dituzten ekintzaile zein enpresentzat.

## Espezializatutako programa Behargintza Basauri-Etxebarrin



info +  
94 426 29 99

Errealitate berri horretaz jabetuta, Behargintza Basauri-Etxebarrik, beste zenbait garapen agentziarekin batera, eta Garapen buru izanik (Garapen Agentzien Euskal Elkartea), **“Silver Bizkaia”** proiektua dinamizatuko du. Proiektu hau Bizkaiaiko Foru Aldundiak kofinantzatu du, Lankidetzan sortutako Berrikuntza-proiektuen Elkarlanean 2019 Programaren barnean, ondorengo helburuekin:

- 01** Adin nagusikoei zuzendutako merkatuek eskaintzen dituzten aukeretan sakontzea, eskualdean bereziki garrantzitsuak izan daitezkeen lau arlotan: **Elikadura, Osasuna-Zainketa, Turismoa-Aisia-Merkataritza eta Etxebizitza.**
- 02 Bertako enpresa nahiz ekintzaileei negozio eta lanbide aukera berrietaz baliatzea** ahalbidetuko dien proiektu berriak identifikatu eta sustatzea.

Silver Bizkaia ekimena **2019ko azaroan hasi eta 2021 bitartean hedatuko diren jardueren programa espezializatu** gisa antolatatu dugu. Sesioak, lantegiak eta laguntasun aktiboa uztartuko ditugu Behargintza Basauri-Etxebarritik bideratutako eragile eta proiektuentzat, Silver Economy-ren arloan aditua den enpresa baten laguntzaz (Plataforma 50). Programak ondoko egutegia du:

- 01** Sentsibilizazio jardunaldia Basauri-Etxebarrin. Aukera berrien nondik-norakoak azalduko zaizkie interesa duten enpresa eta pertsoneri. 2019ko azaroaren 21ean.
- 02** Gaikako 4 lantegi, eskualdeen arteko lankidetzak bideratzeko.
- 03** Espezializatutako laguntasuna bideragarriak izan daitezkeen proiektu berrien sortze eta garapenerako.